



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

<p><b>JON BILBAO KATEDRARAKO NEVADAKO UNIBERTSITATEAN, RENON IKERKETA EGONALDIRAKO IRAKASLE GONBIDATUA AUKERATZEKO DEIALDIA</b></p>	<p><b>CALL TO SELECT THE JON BILBAO VISITING RESEARCH FELLOW AT THE UNIVERSITY OF NEVADA, RENO</b></p>
<p>Etxepare Euskal Institutuak (aurrerantzean Etxepare) eta Nevada System of Higher Education-ek (aurrerantzean NSHE), University of Nevada, Renoren izenean, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, University of Nevada, Reno-n euskal diasporari buruzko ikerketa elkarrekin sustatzeko, izan nahi dituzten erakunde arteko harremanen esparruan eta euskal ikasketen esparruan ikerketarako lankidetzaz jarduteko xedearekin. Aipatu hitzarmenaren testuinguruan, Etxeparek eta NSHEk "Jon Bilbao ikertzaile gonbidatua 2021" izeneko deialdi hau argitaratu dute. Deialdia <a href="http://www.etxepare.eus">http://www.etxepare.eus</a> eta <a href="http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021">http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021</a> webguneetan zabalduko da, baita H-Announce eremu akademikoko iragarki plataforman: <a href="https://networks.h-net.org/h-announce">https://networks.h-net.org/h-announce</a> eta Society of American Archivists webgunean <a href="https://connect.archivists.org">https://connect.archivists.org</a></p>	<p><i>The Etxepare Basque Institute (Etxepare) and the Nevada System of Higher Education (NSHE), in the name of the University of Nevada, Reno, have signed an agreement to collaboratively support research about the Basque Diaspora.</i></p> <p><i>In this cooperation framework, Etxepare and the NSHE are opening this call "Jon Bilbao Visiting Research Fellow 2021" which will be published in <a href="http://www.etxepare.eus">http://www.etxepare.eus</a>, and <a href="http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021">http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021</a> websites, the H-Announce platform: <a href="https://networks.h-net.org/h-announce">https://networks.h-net.org/h-announce</a> and the website of the Society of American Archivists <a href="https://connect.archivists.org">https://connect.archivists.org</a></i></p>
<p><b>1. XEDEA</b></p>	<p><b>1. OBJECT</b></p>
<p>Deialdi honen xedea da 2021 urteko ekitalditako Jon Bilbao Visiting ikertzaile gonbidatua hautatzea, Euskal Diaspora gaiari buruzko ikerketa proiektua burutu eta University of Nevada, Renon, hilabeteko ikerketa egonaldia egin dezan. OHARRA: Renon hilabeteko egonaldia egiteko daten eta moduen aukera COVID19 birusaren ondoriozko osasun egoeraren bilakaeraren menpe egongo da.</p>	<p><i>The object of this call is to select the Jon Bilbao Visiting Research Fellow for 2021, who will design a research project about the Basque Diaspora and stay for a month at the University of Nevada, Reno.</i></p> <p><i>NOTICE: The date and options of the one month stay will depend on the health emergency situation for the COVID19 pandemic.</i></p>



<b>2. IKERKETA EGONALDIAREN DESKRIBAPENA</b>	<b>2. DESCRIPTION OF THE RESEARCH STAY</b>
<p>Egonaldia 2021ko abuztutik abendura bitartean izango da.</p> <p>Programaren ezaugarriak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Deialdian aurkeztutako ikerketa proiektua gauzatzea</li><li>-Euskal Diasporaren ikerketarako trukerako espazioak garatzea, lankidetzarako aukera berriak identifikatu eta ideia berriak garatzeko, baita amerikar ikergune eta ikertaldeetan euskal diasporari buruzko ikerketa txertatzeko.</li><li>-Amerikar akademian Euskal Diasporari buruzko ikerketa sarea osatu eta indartzeko pausuak ematea.</li><li>-Jardunaldi hitzaldi eta ekintzak antolatzea Estatu Batuetako akademia eta gizartean euskal diasporari buruzko ezagutza zabaldu ahal izateko.</li><li>-University of Nevada Renoko Center for Basque Studies (CBS) eta Jon Bilbao Liburutegiako (JBL) arduradunekin partekatutako komunikazio estrategia garatzea proiektuaren ikusgaitasuna eta sortutako ezagutzaren zabalkundea indartzeko.</li><li>-Alde guztien artean adostutako beste edozein ekintza Euskal Diasporaren ikerketa eta bere zabalkundea indartzera bideratua dagoena.</li></ul>	<p><i>The one month stay will be happening between August and December 2021.</i></p> <p><i>Program Description:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <i>To implement the proposed research project</i></li><li>- <i>To develop collaboration opportunities in the Basque Diaspora research field and to identify new collaboration opportunities, as well as opportunities to include it in American research institutions and groups.</i></li><li>- <i>To take steps to develop and strength the Basque Diaspora research network in the American academia.</i></li><li>- <i>To organize talks and conferences to increase the awareness about the Basque Diaspora in the American Diaspora and society.</i></li><li>- <i>To develop a communication strategy in conjunction with the Center for Basque Studies and the Basque Library to increase the visibility of the research project and to strength its divulgation.</i></li><li>- <i>Any other action agreed by the three parts directed to research about the Basque Diaspora and to increase its divulgation.</i></li></ul>
<b>3. EGONALDIAREN XEDEA</b>	<b>3. RESEARCH STAY'S GOAL</b>



<p>Euskal Diasporaren ikerketarako trukerako espazioak garatu eta Amerikar akademian Euskal Diasporari buruzko ikerketa sarea osatu eta indartzeko xede orokorra izanik, 2021ko egonaldian hitzaldi eta ekintzak antolatzea Estatu Batuetako akademia eta gizartean euskal diasporari buruzko ezagutza zabaldu ahal izateko.</p> <p>-University of Nevada Renoko Center for Basque Studies (CBS) eta Jon Bilbao Liburutegiako (JBL) arduradunekin partekatutako komunikazio estrategia garatzea proiektuaren ikusgaitasuna eta sortutako ezagutzaren zabalkundea indartzeko.</p>	<p><i>-Being the general goal of this call developing collaboration opportunities in the Basque Diaspora research field and identifying new collaboration opportunities, as well as opportunities to include it in American research institutions and groups, for 2021 to organize talks and conferences to increase the awareness about the Basque Diaspora in the American Diaspora and society.</i></p> <p><i>-To develop a communication strategy in conjunction with the Center for Basque Studies and the Basque Library to increase the visibility of the research project and to strength its divulgation.</i></p>
<b>4. ESKABIDEAK AURKEZTEA</b>	<b>4. APPLICATION</b>
<p><b>4.1. Eskatutako agiriak:</b> eskaerei honako dokumentuak gehitu beharko zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Curriculum Vitae</li><li>-NAN edo pasaportearen fotokopia</li><li>-Doktore tituluaren fotokopia</li><li>-egungo lan kontratua</li><li>-proposatutako ikerketa eta transferentzia ekintzen proiektua (gehienez 4 orrialde, Times New Roman 12, 1,5 lerroarteko espazioan).</li></ul>	<p><b>4.1 Required documentation:</b> the following documents will be sent along with the application:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- CV</li><li>- Photocopy of ID or passport</li><li>- Photocopy of the Ph.D. Diploma</li><li>- Current employment contract</li><li>- Research and knowledge transfer project (at most, four pages with 1.5 line spacing, and text set in 12 point Times New Roman type.)</li></ul>
<p><b>4.2. Aurkezteko epea:</b> eskabideak aurkezteko epea 2021ko martxoaren 3an amaituko da. Ez dira aintzat hartuko data horretarako dokumentazio guztia behar bezala aurkeztuta ez duten eskabideak.</p>	<p><b>4.2. Application deadline:</b> applications deadline is March 3rd, 2021. Applications without the required documentation will not be assessed.</p>
<p><b>4.3. Aurkezteko modua:</b> Eskabidea (l. eranskina) eta dokumentazioa ondorengo helbide elektronikora eta ondorengo helbide postalera bidaliko da:</p> <p>Jon Bilbao Euskal Liburutegia 1664 N Virginia St University of Nevada, Reno / MS 0322 Reno, Nevada 89557</p> <p><b>ETA gainera</b> posta elektronikoz: arrieta@unr.edu</p> <p>Eskabidea <a href="http://www.etxepare.eus">http://www.etxepare.eus</a> eta <a href="http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021">http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021</a> helbidean egongo da eskuragarri,</p>	<p><b>4.3. Applying:</b> application form (Annex 1) and the required documentation must be sent the following address:</p> <p>Jon Bilbao Basque Library 1664 N Virginia St University of Nevada, Reno / MS 0322 Reno, Nevada 89557</p> <p><b>AND additionally</b> by email: arrieta@unr.edu</p> <p>The application form is available at <a href="http://www.etxepare.eus">http://www.etxepare.eus</a> and <a href="http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021">http://library.unr.edu/locations-and-spaces/basque-library/fellowship2021</a></p>



euskaraz, gazteleraz eta ingelesez.	<i>in Basque, Spanish, and English.</i>
<b>5. HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK</b>	<b>5. APPLICANTS ELIGIBILITY</b>
<p>-doktoze titulua izatea -unibertsitate mailako irakasle edota ikertzaile izatea -Euskal Diasporan ikertzaile eskarmentua izatea -Azken 4 urteetan Jon Bilbao katedrako ikerketa egonaldiako laguntzarik ez jaso izana. - Ingelesez ondo moldatzea (gutxienez B1 maila frogatu beharko da).</p>	<p><i>Applicants must:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <i>Hold a Ph.D. Diploma</i></li><li>- <i>Be university professors or researchers.</i></li><li>- <i>Be experienced in research about the Basque Diaspora.</i></li><li>- <i>Not be receptors of the grant for the Jon Bilbao Fellowship research stay in the last four years.</i></li><li>- <i>Be proficient in English (at least, B1)</i></li></ul>
<b>6. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK</b>	<b>6. AVAILABLE RESOURCES</b>
<p>Hautatutako ikertzaileak 5.000 euro arteko laguntza jasoko du Etxepare Euskal Institutuagandik, egonaldiako bidaia (Europa eta Ipar Amerika artean, Estatu Batuak eta Kanada barne direla), ostatua eta University of Nevada Renon ikerketa egonaldi bitartean eginiko mantenu gastuak ordaintzeko, baita ere urteko foro zientifikoa (udako ikastaroa, mintegia, hitzaldia edo lantegia) antolatzearekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko, edo bestela, ikertzaile gonbidatuak nazioarteko foro akademiko batean parte hartzeak eragindako gastuak ordaintzeko.</p> <p>Center for Basque Studies-ek ikertzaileiaren bisaren kostua ordainduko du, 800 dolar arte, eta baita aseguruaren kostua ere, 1.000 dolar arte. Gainera ikertzaileari lanerako prestatutako bulegoa eskainiko dio eta asteko hogeitau ordu arteko ikerketa-laguntza ere bai, ikasturtean zehar, laguntzaile graduatu baten bidez. CBSk proiektuari eskainitako web-orria sortuko du bere webgunearen baitan, eta hori mantentzeko lanak egingo ditu.</p> <p>Jon Bilbao Euskal Liburutegiak bere bildumara sarbidea emango dio ikertzaileari, Euskal diasporaren gaineko Estatu Batuetako beste bildumen gaineko</p>	<p><i>The Fellow will receive up to 5,000 euros from the Etxepare Basque Institute. This amount will cover the Fellow's travel (between Europe and North America, including the USA and Canada), his/her lodging, and subsistence while abroad. It will also cover the expenses related to the organization of an annual scientific forum (summer course, seminar, conference, or workshop) or the costs related to the participation of the Fellow in an international academic forum.</i></p> <p><i>The CBS will cover the cost of the Fellow's visa up to \$800, as well as the cost of the Fellow's insurance up to \$1,000. The CBS will provide an equipped office for the Fellow on its premises and research assistance by a CBS graduate assistant for up to twenty hours per week during the academic year. The CBS will also create and maintain a webpage dedicated to the project on the CBS website.</i></p> <p><i>The JBBL will provide the researcher access to the collections hosted by the library, advise on collections related to the Basque Diaspora hosted at other memory institutions thought the US, and support on</i></p>



<p>informazioa, bai eta ikerketari lotutako dokumentazioa antolatzeko laguntza ere. Jon Bilbao Euskal Liburutegia hautatuko ikerketa proiektuaren baitan jasotako materialen (grabaketen, galdetegien, etab.) errepositorio izango da, bai eta emaitzen zabalkunderako plataforma (nagusia) ere.</p>	<p><i>the organization of research materials gathered by the grantee during his or her project.</i></p> <p><i>The JBBL shall be the repository of materials (recordings, surveys, etc.) gathered during the research project, as well as the primary platform for the diffusion of this research collection.</i></p>
<p><b>7. HAUTAPEN-BATZORDEA</b></p>	<p><b>7. SELECTION COMMITTEE</b></p>
<p>Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Hautapen-batzorde bat eratuko da. Honako hauek izango dira bertako kide: Lehendakaria: Garbiñe Iztueta Goizueta, EEIko Euskara Sustatu eta Hedatzeko Zuzendaria.</p> <p>Batzordekideak: -Irene Larraza Aizpurua, EEIko Zuzendaria -Xabier Irujo, CBSko zuzendaria. -Iñaki Arrieta Baro, Jon Bilbao Euskal Liburutegiko zuzendaria</p> <p>Idazkaria: Eneko Agirre Maiora, EEIko Euskara eta Kultura teknikaria, edo bere ordezkoa hitz egiteko eskubidearekin, baina botorik gabe.</p>	<p><i>A selection committee will analyze and assess the proposals. Its members will be:</i> <i>Chair: Garbiñe Iztueta Goizueta, director for the promotion and dissemination of the Basque Language of the Etxepare Basque Institute.</i> <i>Members:</i> <i>- Irene Larraza Aizpurua, director of the Etxepare Basque Institute.</i> <i>- Xabier Irujo, director of the Center for Basque Studies</i> <i>- Iñaki Arrieta Baro, head of the Jon Bilbao Basque Library</i> <i>Secretary: Eneko Agirre Maiora, Basque Language and Culture Technician at the Etxepare Basque Institute, or a substitute, with voice but without vote.</i></p>
<p><b>8. HAUTAPEN-IRIZPIDEAK</b></p>	<p><b>8. SELECTION CRITERIA</b></p>
<p>Hautagaien aukeraketa honako baremoaren arabera egingo da eta, guztira, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere:</p> <p>CV: 40 puntu Curriculumean ondorengoak hartuko dira kontuan: aurrera eramango diren ekintzei lotutako ibilbide akademikoa, nazioarteko proiektuetan eskarmentua, nazioartean ikerketa egonaldietan eskarmentua, elkarlanean ikerketa egiten eskarmentua</p> <p>Aurkeztutako ikerketa proiektua: 60 puntu. Proiektuan ondorengoak baloratuko dira: proiektuaren egokitasuna Euskal</p>	<p><i>The selection of the grantee will be based on the following criteria. Each application will receive up to 100 points.</i></p> <p><i>CV: 40 points. Applicant's academic career in connection to proposed actions, experience in international projects, experience in international research stays, and experience in collaborative research projects will be evaluated.</i></p> <p><i>Research project: 60 points. Project's suitability in regards to the Basque Diaspora research field, quality, interest, viability,</i></p>



Diasporaren gaiari dagokionez, kalitatea eta interesa, bideragarritasuna, genero ikuspegiaren txertaketa, alde berritzaileak	<i>gender equity, and innovativeness will be evaluated.</i>
<b>9. HAUTAGAIEN AUKERAKETA</b>	<b>9. SELECTION PROCESS</b>
<p>Baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskabide guztiak aipatutako hautapen-irizpideak aplikatuz erkatuko dira. Proiektuak hurrenkera batean jarriko dira, baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita. Hautapen Batzordeak hautagai bat proposatuko du.</p> <p>Deialdi honetan eskainitako plaza esleitu gabe gelditu ahalko da honako kasuetan:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Hautagaiek puntuazio orokorrean 50 puntu baino gutxiago lortzen badituzte.</li><li>- Deialdi hau argitaratu ondoren, edozein arrazoi medio, University of Nevada, Reno, eta EEIren arteko lankidetzaren hitzarmena gauzatzen ez bada edo bertan behera gelditzen bada.</li></ul>	<p><i>Applicants meeting the required qualifications will be assessed according to the selection criteria. Research projects will be listed ordered by highest scoring. The selection committee will propose a candidate.</i></p> <p><i>The fellowship will not be granted in any of the following cases:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <i>If the candidates obtain less than 50 points.</i></li><li>- <i>If, after publishing the call, the agreement between the University of Nevada, Reno and the Etxepare Institute is withdrawn.</i></li></ul>
<b>10. JAKINARAZTEA</b>	<b>10. NOTIFICATION</b>
<p>University of Nevada, Reno eta Etxepare Euskal Institutuaren webguneen bitartez emango da hautatutako pertsonen eta plazarik gabe geratutako hautagaien berri. Azken hauek erreserban egongo dira, hautatuek ukoa aurkeztu edo ordezkatu beharra gertatuta ere.</p> <p>Web-orrian zerrenda horren berri eman eta berehala, Etxepare Euskal Institutua harremanetan jarriko da aukeratutako pertsonekin, egin beharreko izapideak ahalik eta azkarren egiteko.</p>	<p><i>The list of the grantee and substitutes will be published in the page of the University of Nevada, Reno and the Etxepare Institute. The substitutes list will serve for replacement in the event of rejection by the grantee.</i></p> <p><i>Once the list is published, the Etxepare Institute will contact the grantee to facilitate the procedure.</i></p>
<b>11. UKOAK ETA ORDEZKAPENAK</b>	<b>11. REJECTION AND REPLACEMENT</b>
<p>Hautatutakoak University of Nevada, Renora joan aurretik egonaldiari uko egiten badio, University of Nevada, Reno eta EEIk ordezkoen zerrendatik hautagai berria proposatuko dute, ordezkoen zerrendaren hurrenkeran.</p>	<p><i>If the selected person rejects the stay before arriving in the University of Nevada, Reno, the Etxepare Institute and the University of Nevada, Reno will choose a new person following the order of the list of substitutes.</i></p>



<b>12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK</b>	<b>12. OBLIGATIONS OF THE FELLOW</b>
<p><b>12.1.</b> Egonaldietan parte hartzea onartzea: erabakia jakinarazi eta hamar eguneko epean, hautatuek idatziz onartu beharko dute egonaldian parte hartu eta egonaldiaren baldintzak betetzea. Hala egiten ez badute uko egiten dutela ondorioztatuko da.</p> <p><b>12.2.</b> 2021eko abuztutik abendu bitartean University of Nevada, Renon hilabeteko egonaldia egitea.</p> <p><b>12.3</b> Emandako ordainsaria onartutako proiektuaren garapenerako erabiltzea eta gastuen justifikazioa aurkeztea.</p> <p><b>12.4.</b> Aukeraturiko ikertzaileak konpromisoa hartzen du bere lanaren prozesua, emaitza, edo honen zati bat, ikastaro, hitzaldi edo antzeko topaketa baten bidez partekatuz, eta Etxepare Euskal Institutuarekin adosturiko formatuan. Era berean, garatutako proiektuaren balorazio-memoria bat aurkeztu beharko dute.</p> <p><b>12.5.</b> University of Nevada, Reno eta EEIk ikertzaileak plazaratzen dituen ikerketa lanak beren plataformen bidez zabaltzeko eskubidea izango dute baldin eta erabilera komertzialik ez bada.</p> <p><b>12.6.</b> Ikerketa egonaldi honen ondorioz sortutako ikerketa lanen egile eskubideak ikertzailearen esku geratuko dira, baina haiek hedatzean beren-beregi adierazi beharko da lanaren jatorria University of Nevada, Reno eta EEIk bultzatutako egonaldia dela.</p>	<p><i>12.1. To accept the fellowship: the grantee shall accept the fellowship and its obligations in written ten days after being notified. If this condition is not meet, it will be understood that the grantee has rejected the fellowship.</i></p> <p><i>12.2. To stay for a month in the University of Nevada, Reno between August and December 2021.</i></p> <p><i>12.3. To expend the received grant for developing the research project and provide the justification for expenses.</i></p> <p><i>12.4. The selected researcher accepts to share the research process or its outputs, in whole or in part, through a talk or conference, in a manner agreed with the Etxepare Institute. An evaluation report of the research stay shall be sent.</i></p> <p><i>12.5. The University of Nevada, Reno and the Etxepare Institute are entitled to share the research output through their platforms without commercial use.</i></p> <p><i>12.6. The copyright of the research output from the research stay belongs to the researcher, but during any communication action, it shall be acknowledged that it was developed during a stay promoted by the University of Nevada, Reno and the Etxepare.</i></p>
<b>13. ORDAINKETA</b>	<b>13. PAYMENT</b>
<p>Egonaldian parte hartuko duen ikertzaileari honela egingo dizkio ordainketak Etxepare Euskal Institutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- %50 hautapena onartu eta gehienez 15 eguneko epean.</li><li>- %50 jarduera amaitu eta deialdi honetako 12. puntuan aipatzen diren</li></ul>	<p><i>The payment to the researcher will be made by the Etxepare Basque Institute as follows:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- <i>50%: No more than 15 days after accepting the grant.</i></li><li>- <i>50%: after the research stay and fulfilling the obligations of point 12, no later than December 31, 2021.</i></li></ul>



<p>baldintzak beteta, beranduenik ere 2021eko abenduaren 31n.</p> <p>Zenbateko honi kendu egingo zaizkio, hala dagokionean, indarrean dagoen zerga araudiaren baitan dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.</p> <p>Kasua bada, jarduera hasteagatik aplikagarria den atxikipena, onuradunak eskatu beharko du. Eskaera hori egonaldia onartzeko unean aurkeztu beharko da.</p>	<p><i>The corresponding deductions and payments on account will be applied to this amount in accordance with tax regulations.</i></p> <p><i>If applicable, the deduction for commencement of activity must be requested by the grantee. This request shall be submitted at the time of accepting the grant.</i></p>
<b>14. EZ BETETZEAK</b>	<b>14. NON-COMPLIANCE</b>
<p>Deialdi honetako 12. puntuan ezarritako betebeharrak beteko ez balira, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta aukeratutako pertsonak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak gehi horiei legez dagozkien interesak.</p>	<p><i>In the event of not fulfillment of the obligations of point 12, the grantee will be obliged to return to the Etxepare Institute the payments received plus legal interest.</i></p>
<b>15. DATUEN BABESA</b>	<b>15. PERSONAL INFORMATION PROTECTION</b>
<p>Datuen babesari buruzko araudiari jarraituz, deialdi honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak "Euskal Hizkuntza eta Kultura Lektoreak eta Katedretako Irakasle Gonbidatuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, eta deialdi honen xedeetarako erabiliko dira soilik. Honen arduraduna Etxepare Euskal Institutua izango da. Legezko betebeharririk izan ezean, eta proposatutako hautagaien kasuan, dagokien unibertsitateetara bidaltzearen kalterik gabe, ez zaizkio hirugarren bati lagako.</p> <p>Interesdunak ondoko eskubideak ditu: datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta kontra egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Interesdunak eskubide hauek egikaritu ditzake, eskabidea ondoko helbidera zuzenduz: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza, 1, Tabakalera eraikina, 20012 Donostia, edo Datuen babes ordezkariari, hurrengo</p>	<p><i>Following the legal framework for the Personal information protection, it is acknowledged that the personal information sent to take part in this call will be added to the "Euskal Hizkuntza eta Kultura Lektoreak eta Katedretako Irakasle Gonbidatuak" database and will be used only for this call. The Etxepare Institute is the responsible party for personal information treatment. Unless legal requirement, or contacting the applicants' universities, the personal information shall not be shared with third parties.</i></p> <p><i>The interested parties are entitled to access, correct, erasure the provided personal information, as well as to oppose and limit the transmission, data-treatment, and individualized automatic treatment of their personal information. To exercise their rights, the interested parties shall contact Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza, 1, Tabakalera eraikina, 20012 Donostia, or alternatively: dpd-dbo@euskadi.eus.</i></p>





**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

helbidean: <a href="mailto:dpd-dbo@euskadi.eus">dpd-dbo@euskadi.eus</a> .	
---	--